







Energia kontsumoa EAEn



Energiaren kontsumoa EAEn

Elektrizitatea

Euskadin kontsumitutako elektrizitateak %4,6 egin zuen behera urtarrilean, 2015. urteko hil berean izandakoaren aldean. Arloka, industrian %0,1 igo zen; etxekoan eta zerbitzu arloan, berriz, %14,3 eta %5,1 jaitسي ziren, hurrenez hurren. Azken 12 hilabete hauetan kontsumo metatuak %1,2 egin zuen gora, aurreko epealdian izandakoarekin erkatuta; etxeko sektorean %1,8 igo zen, zerbitzuan %2,8 eta industrian %0,1; itsas eraikuntza eta konponketan %25,7 egin zuen gora, burdinazkoa ez den metalurgian %5,8 eta kautxuaren eratorrietan %3,4. Behera egin zutenak, aldiz, kimika sektorea (%1,1) eta siderurgia (%1,2) izan ziren.

Gas naturala







Urtarrilean, gas naturalaren guztizko kontsumoak %14,6 egin zuen behera, 2015eko urtarrilean izandakoarekin konparatuta. Zentral termikoena %21,3 jaitسي zen eta gainerako sektoreena %13,5. Azken 12 hilabeteotan izandako kontsumo metatua %2,8 jaitسي da (-%18,3 CCTT-n eta +%1,3 gainerako sektoreetan).

Erregaiak garraioan

Abenduan, garraioan erregaien kontsumoa %4,3 igo zen, 2014. urteko hil berean izandakoarekin konparatuta. Gasolinaren kontsumoak %0,5 egin zuen behera eta A gasolioarenak, ordea, %4,9 egin zuen gora. 2015eko kontsumoa %3,3 igo zen, aurreko epealdiarekin alderatuta. Hala, gasolinena %1,2 jaitسي zen eta A gasolioarena, aldiz, %3,8 igo zen.

Iturriak: EEEK prestatua, CORES, Enagás eta Iberdrolaren datuetan oinarrituta.

Kanpoko Egoera



EAetik kanpoko egoera






Petrolioaren kontsumoa munduan
 Urtarrilean, munduan petrolioaren kontsumoa egunean 93,2 milioi kupel izan zen (2015eko urtarrilean izandakoaren aldean, %1,3 igo zen). Epealdi berean, Europar Batasunean %3,2 egin zuen gora kontsumoak, 13,4 Mbpd kantitatera iritsiz; Txinan %2,8 egin zuen gora, eta 11,2 Mbpd kontsumitzera heldu zen; AEBetan %2,2 jaitsi zen, eta 18,8 Mbpd kopuruan kokatu zen.
 Munduan, azken 6 hilabeteen, eguneroko petrolioaren batez besteko kontsumoa %1,5 igo da, oro har; zahazki, Txinan %2,7, AEBetan %1,7 eta Europar Batasunean %2,3.

Energiaren kontsumoa Espainian
 Espainian, gas naturalaren kontsumoak %22,3 egin zuen behera urtarrilean, 2015eko hil horretan izandakoarekin alderatuta. Urte mugikorraren kontsumoak %1,8 egin zuen gora. Elektrizitatearen kontsumoari dagokionez, behera egin zuen urtarrilean, %5,4, 2015eko urtarrilean izandakoaren aldean. Urte mugikorraren kontsumoak %1,4 egin zuen gora.

Espainian, errepideetan erregaien kontsumoak %3,7 egin zuen gora abenduan, 2014ko hil berean izandakoarekin alderatuta; gasolinaren kontsumoa %1,1 igo zen eta gasolioena %4,2. 2015eko kontsumoak %3,4 egin zuen gora, aurreko epealdiaren aldean, (%0,7 igo zen gasolinena eta %4 gasolioena). Bestetik, hegazkinetan erabiltzen den kerosenoen kontsumoak %3,1 egin zuen behera abenduan; 2015eko kontsumoak %4,2 egin du gora, aurreko epealdiarekin erkatuta.

Iturriak: REE, CORES, Enagás, EEEK prestatua, AIE eta EIAREN datuetan oinarrituta.

Energiaren prezioa



Energiaren prezioa

Petrolioaren prezioa

Brent petrolio upelaren batez besteko prezioa 30,8 \$ (28,4 €) izan zen urtarrilean. Urte mugikorren batez besteko prezioak %45,8 egin zuen behera (%35,6 eurotan). 2004ko otsailaz geroztik ez da prezio horretan egon.

Elektrizitatearen prezioa

OMIE eguneroko merkatuan, Espainian, elektrizitatearen prezioa 36,5 €/MWh izan zen urtarrilean; duela urtebetearen aldean, %29,2 egin zuen behera.

Gas naturalaren prezioa

Alemanian, inportazioaren batez besteko prezioa 17,6 €/MWh izan zen abenduan, eta %26,9 jaitsi zen, 2014ko hil berean izandakoarekin erkatuta. Urtarrilean, EGIX-en prezioa 13,7 €/MWh izan zen (2015eko urtarrilean izandakoarekin alderatuta, %33,3 jaitsi zen). Spot merkatuetan, urtarrilean Henry Hub-en prezioa 7,1 €/MWh izatera iritsi zen eta Japonian 24,8 €/MWh (2015eko urtarrilean izandakoaren aldean, %18,4 eta %39,2 egin zuten behera, hurrenez hurren).

Erregaien prezioa

EAEn, urtarrilean, gasolioaren prezioa 0,92 €/l izan zen (urtebetean %13,4 jaitsi da), eta gasolinarena 1,09 €/l (urtebetean %1,4 jaitsi da).

CO₂-aren prezioa

CO₂-aren EUA baimenaren etorkizuneko prezioa 7 €/t izan zen urtarrilean, eta urtebete lehenago izandakoarekin konparatuta, %0,8 egin du gora.

Iturriak: EEEK prestatua, OMIE, CESUR, CNE, EEX, Japoniako Industria Ministerioa eta BAFaren datuetan oinarrituta.